


Hiztunak mutu uzteko estrategiak

EUSKARAREN KATE HAUTSIK du izena Dabid Anautek ondu duen mila orriko liburuak. Euskal Memoria fundazioak argitaratu du lana, euskarak mendez mende jasan duen zapalkuntzaren bilduma. Apalean gordetzeko horietakoa da.

Errepresio bide anitz erabili da historian zehar euskara azpiratzeko, hiztunek hizkuntzari izkina egitea lortzeko, euskaldunak mutu uzteko. Kolore askotako zapalketak ageri dira liburuan; zigor gogorrekoak, mehatxuzkoak, eta ez beti hain bortitz eta nabarmen, ezari-ezarian aritu dira sarri, higaketan.

Anautek, bilketa lan handian, ez ditu zapalkuntzaren lekukoak eta estrategiak soilik kontatu, herritarrek haiei aurre nola egin dieten ere azaldu du. Errepresioa jasan zuten



hainbat euskaldunen lekukotasunak jaso ditu, baita adituei egindako elkarrizketak ere.

Gertatutakoa ez errepikatzeko eta ez ahazteko argitaratu du Euskal Memoria fundazioak lan hau, ez da kasualitatea liburuaren izenburupekoa: *Hizkuntza zapalkuntzaren memoria*.

Tafallan manifestazioa euskaraz ikasteko eskubidearen alde

EUSKARAZ BIZI eta Ikasi Herri Ekimena sortu berriak manifestazioa deitu du abenduaren 14rako Tafallan. Nafarroaren zonifikazioa bertan behera utzi eta haurrek euskaraz ikasteko eskubidea aldarrikatuko dute.

Nafarroako Gobernuak sustatzen duen hizkuntza eskubideen lurralde banaketa salatu du ekimenak, eremu mistoan eta eremu ez euskaldunetan dituzten lege mugak alegia.

Ekimena abian jarri dutenak eremu ez euskaldunekoak dira eta haien ustez, “zonalde ez euskalduna” eta ‘misto’ izendatutako eremuetan bizi garenok munduan beste inon ezagutzen ez diren mugak bizi ditugu egunero. Vasconcearen Legearen ondorioz lerro batek banatzen gaitu euskaraz ikasi ahal izateko eskubidetik”.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Kapitalismoak hiltzen du

BAI, SISTEMA CAPITALISTAK HILTZEN DU. Halaxe esan nahi izan du Francisco aita santuak *Ebanjelioaren postasuna* izeneko bere lehen dokumentu publikoan. Vatikanok ordea, beti bezala hain diplomatiko, ez du horrela esan. Ez du kapitalismo hitza erabili, bere adierazpenak argiak eta irmoak diren arren. Hala, Franciscok dioenez “gaur ezetz esan behar diogu bazterketaren eta zuzentasun ezaren ekonomiari. Ekonomiak hiltzen du. Gaur dena sartzen da lehiakortasunaren eta indartsuenaren legearen jokoan, boteretsuak ahulena jaten du”. Egoera horren ondorioz “populazio masa handiak baztertuta eta marjinatuta bizi dira: lanik gabe, etorkizunik gabe, irteerarik gabe. (...) Sistema sozial eta ekonomikoa injustua da errotik”. Aita santuaren hitzetan desoreka sozial hori sortu dute “merkatuen autonomia absolutua eta finantza espekulazioa defendatzen duten ideiek. (...) Tirania ikusezin eta birtual berria ezarri da, eta aldebakarrez inposatzen ditu bere lege eta arauak”.

Sistema kapitalista honek hil egiten du, paradisu fiskalak mantentzen dituen bitartean, milioika lagu-

nengan gosea, langabezia, miseria eta pobrezia sortzen duelako, batez ere gazteengan. Lan istripuek ere heriotzak sortzen dituzte, baita amiantoak, suizidioak... Kapitalismoak ongizate estatua desegin du, baita ametsetako europar “paradisura” iristeko ahalegine-tan Hirugarren Mundutik emigratu duten milaka lagun heriotza eragin ere. Franciscok zehaztu ez duen arren, horrek guztiak baditu erantzuleak: sistema hau, finantza espekulatzailerik, gestore politiko horiek –asko katolikoak–... Eta Eliza ofiziala ere Vatikanoko erakundeetan hain lasai dabilen kapitalismoaren konplize da askotan. Eliza erreformatzeko beharraz hitz egiten badu ere, Francisco aita santua sinesgarriago litzaiguke aukera aprobetxatu izan balu barkamena eskatzeko. Bere elizak eta bertako kideek sistema hiltzaile honekiko izan duten konplizitateagatik eskatu beharko luke barkamena. Sistema horrek izen bat du, Franciscok aipatu nahi ez badu ere: kapitalismoa.

Juan Mari Arregi

